

han-hemen

Bankuan eguzkietako betaurrekoekin sartzeak atxiloketa ekar dezake Txinan

Wuhan hirian (Txina) dau den bankuetan eguzkietako betaurrekoekin edo kapelarekin sartzeak ondorio larriak ekarriko ditu hemendik aurrera. Segurtasunerako arriskutsuak direla adierazi dute hango agintariek, eta haiek jantziak dituztela banketxean sartzen direnek atxilotuak izateko arriskua dutela jakinarazi dute. Zuzenean susmagarritzat joko dituzte, eta galarazi egingo zaie banketxean sartzea. Gainera, beharrezko iritziz gero, Poliziari abisua emango diote.

Fontana di Trevin txanponak hartzen ibiltzen zen gizona atxilotu du Italiako Poliziak

Roberto Cercelleta langabeak, orain arte, turistek Fontana di Trevin botatako txanponak jasotzen zituen, eta halaxe ateratzen zuen bizimodua. Duela egun batzuk, ordea, debekatu egin zioten hori egitea, eta berriro ere txanponak hartzen hasi denez, atxilotzea erabaki dute. Cercelleta oso ezaguna da Erromako turisten eta biztanleen artean, eta *D'Artagnan* ezizena jarri diote. Atxilotu dutenean, 22 kilo txanponenez betetako poltsa bat kendu diote, guztiak Fontana di Trevin hartuak. Udalak dirua hartzea debekatu zionean, bere burua zauritu zuen labana batekin, *langabezia* utzi zutelako protestan. 50 urteko italiar hori urteetan aritu da *ogibide* horretan, denen begiradapean.



JAROSLAV PAP / AP

Beroari aurre egiteko bainu freskagarria

Egun hauetan Belgraden (Jugoslavia) egiten duen ezohiko beroa dela eta, Backi Monostor parke naturaleko animaliek hainbat irtenbide aurkitu behar izan dituzte. Argazkian ikusten dugun oreinak, bainu freskagarria hartzeaz gain, euliengandik ihes egitea ere lortu du.



CHRIS PIZZELLO / AP

Clint Eastwood eta Anjelica Hustonen azken lana aurkeztu dute Kalifornian

Clint Eastwood, Anjelica Huston eta Wanda De Jesus izan dira aktore nagusiak *Blood Work* filmean. Lan horren aurkezpenean izan ziren, Kaliforniako Warner Bros zinema estudioetan.



GOH CHAI HIN / EPA

Asmatu duen tresnaren funtzionamendua erakusteko prest

Huang Qintang asmatzaileari bularrak handitzen laguntzen duen tresna bat egitea bururatu zaio. Tresnaren funtzionamenduaren berri emateko, bere gorputza erabili du, gainera.

Bizilagunaren etxeko pareta behera bota du, beste logela bat egin nahian

Frosinone herrian (Italia), bizilagunaren etxeko pareta behera bota du gizon batek, bost seme-alabentzako beste logela bat lortu nahian. Etxean leku gutxi duela eta, guztiz etsirik, hori izan omen da bururatu zaion irtenbide bakarra. Zazpi lagunek osatzen dute familia, eta bi logelako etxe batean bizi dira; horregatik, sukaldea ere logela moduan erabili behar dute. Bizilagunak etxetik alde egin behar zuela jakin, eta besterik ez zitzaion bururatu, guztiak hobeto egongo zirelakoan. Langabezia dago gizon hori, eta irtenbidea eskatu du egoera horri aurre egiteko.

Aita Santuaren sukaldariak ez daki zer prestatu Krakovian dagoen bitartean

Krakoviako Artzapezpikuen Etxean sukaldari lanean ari den mojak, Ludmila izenekoak, ez du erabaki oraindik zein izango den Aita Santuaren bisitarako prestatuko duen menua. Hala ere, Joan Paulo II.ari zer eskainiko dion ez dakien arren, argi omen du zer ez dion prestatuko: izokina, aza eta azalorea. Polonia-ko hainbat irratsaiotan jakinarazi duenez, 37 urte daramatza Krakoviako apezpikuentzat sukaldari lanetan, eta, beraz, Karol Wojtylak berak ere ezagutzen du haren sukaldea. Aita Santuak abuztuaren 16tik 19ra bitartean bisitatu du jaioterria.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222
publi@egunkaria.com